

**COMPLIANCE PENALEKO POLITIKA**  
**ULMA Forja, S. Coop.en**

**AURKIBIDEA:**

---

<b>1. XEDEA</b>	<b>3</b>
<b>2. APLIKAZIO EREMUA</b>	<b>3</b>
<b>2.1 Eremu substantiboa</b>	<b>3</b>
<b>2.2 Irismen sozietarioa eta operazionala</b>	<b>3</b>
<b>3. PRINTZIPIOAK ETA KONPROMISOAK</b>	<b>4</b>
<b>4. ANTOLAKETA EGITURA</b>	<b>5</b>
<b>4.1 Kontseilu Errektorea</b>	<b>6</b>
<b>4.2 Gerentzia</b>	<b>6</b>
<b>4.3 Zuzendariak eta aginte karguak</b>	<b>7</b>
<b>4.4 Compliance Batzordea</b>	<b>7</b>
<b>5. KOMUNIKAZIOA ETA PRESTAKUNTZA</b>	<b>8</b>
<b>6. ZAINZA, KONTROLA ETA DIZIPLINA</b>	<b>9</b>
<b>7. EGUNERATZEA</b>	<b>9</b>

## 1. XEDEA:

ULMA Forja, S.Coop.en compliance penaleko politikaren (aurrerantzean, “**Politika**”) xedea da ezartzea zer konpromiso duen ULMA Forja, S.Coop.ek (aurrerantzean, “**Kontseilu Errektorea**” eta “**Erakundea**” ere bai), gobernu organoa den heinean, Erakundean betetze penalaren kudeaketa aktiboarekin eta ezartzea, halaber, nola gauzatuko duen konpromiso hori.

## 2. APLIKAZIO EREMUA

### 2.1 Eremu substantiboa

ULMA Forja, S.Coop. batez ere prestazio handiko brida eta osagai forjatuak fabrikatzen diharduen kooperatiba bat da, eta sektore honetako munduko liderretako bat.

Bere lidergo posizioak eta bere bezero nagusiek betetzeari ematen dioten garrantziak (batez ere gure ordenamendu juridikoan zigor arloko zuzenbidean sartu diren betekizunak betetzeari dagokienez) politika hau definitzera eraman dute Erakundea. Politika horrek aurrerago jasotzen diren legezketasun, arreta egoki, arriskuaren kudeaketa eta gardentasun printzipioak ezartzen ditu, eta printzipio horiek, berriz, antolaketa eta kudeaketa eredu espezifiko bat inplementatzera behartzen dute Erakundea, betetze penala ziurtatzeko, ULMA Taldeak bere gain hartutako konpromisoekin koherentea izanda (“**Betetze Eredua**” edo “**Compliance Sistema**”).

Hala, Betetze Ereduak zigor arloko zuzenbidearen esparruan Erakundeari aplikatzen diren baldintzak lantzen ditu, besteak beste, iruzurraren prebentzioa, ustelkeriaren eta eroskeriaren prebentzioa eta kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa.

### 2.2 Irismen sozietarioa eta operazionala

Erakundeak garatutako eragiketa eta jarduera guztiei, barrukoei zein negoziokoei, aplikatuko zaie politika hau.

Zentzu horretan, erakundeak jarduera hauetan eduki ditzake zigor arloko ez betetzeak egiteko arriskuak:

- Administrazio ekonomikoa eta finantzarioa.
- Pertsonen administrazioa eta barne antolaketa.
- Informazio sistemak.
- Jarduera komertziala.

- Berrikuntza, bulego teknikoa.
- Erosketak.
- Ekoizpena, fabrikako eragiketak (hiru fabrika).
- Kalitatea.
- Mantentze lanak.

### 3. PRINTZIPIOAK ETA KONPROMISOAK

Hauek dira politika honen oinarri diren printzipioak:

1. Legezketasuna, hau da, aplikatzekoa den legeria errespetatzea eta betetzea. Jokabide irregular oro debekatuta dago, eta ezin izango zaie erakunde barrukoei edo hirugarrenei inposatu, edo eragina edo boterea duen beste batek inposatutakoa dela esanez argudiatu.
2. Arreta egokia, hau da, erabakiak egoki kudeatzeko eta erabakiak behar bezala hartzeko informazioa lortzeko eta aztertzeko premia.
3. Arriskuaren kudeaketa, ez betetzeak egiteko arriskuarekiko esposizio handiena antzematen den eremuetan prebentzioa eta kontrola indartuz, arrisku hori minimizatu egin beharko da-eta.
4. Prebentzioaren kultura, jarduera soziala garatzean legea eta enpresa etika betetzea baloratzen eta sustatzen duen lan giroa sortuta.
5. Gardentasuna eta lankidetzeta, dagozkien interes taldeei eta batez ere erakundeko bezeroei antzemandako eta baieztatutako irregulartasunen berri emanez, eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak planteatuz.

Printzipio horiei jarraiki, Kontseilu Errektoreak, Erakundearen izenean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- ✓ Politika hori eta aplikatu beharreko zigor araudia betetzea, erakundearen izenean edo kontura irregulartasun penalak gertatzea prebenitzea eta gertatuz gero zero tolerantzia edukitzea (erabateko debekua), eta kide guztiei konpromiso bera eskatzea.
- ✓ Eraginkortasunez gauzatzea hartutako konpromisoa, betetze eredia kudeatzeko sistema baten bidez, ziurtatzeko tresna gisa, etengabe hobetzeko eskema baten pean eta funtsezko prozesu hauek osatuta:

1. Betetze arriskuen ebaluazioa, Politika honen ondoriozko helburuak ezartzea, eta hori lortzeko behar diren hobekuntza ekintzen plangintza.
  2. Prebentzioa Erakundearen operatiban integratzea, arriskua kontrolatzeko eta murrizteko sortutako edo berrikusitako politiken, protokoloen, prozeduren edo jarraibideen bidez.
  3. Prebentzioa Erakundearen kulturean integratzea, pertsonen kudeaketaren, barne komunikazioaren eta prestakuntzaren bidez.
  4. Betetze ereduaren jardunaren eta helburuen jarraipena eta ebaluazioa.
  5. Etengabeko hobekuntza eta desadostasunen kudeaketa.
- ✓ Kotsularako eta barne salaketarako mekanismoak ezartzea, konfidentzialtasunez jokatu delako eta errepresaliarik egongo ez delako bermatuta. Legez kanpoko jokabideak, delituzkoak edo ustez hala direnak, nahitaez salatu behar dituzte horien lekuko direnek edo delituzkoak diren susmoa edukitzeko zentzuzko arrazoiak dituztenek.
  - ✓ Komunikatzeko mekanismoak eta zuzentzeko adiskidetasun planak ezartzea interes taldeekin, hautemandako eta baieztatutako irregulartasunen eragina pairatzen dutenerako.
  - ✓ Ekimen eta kontrolerako botere autonomoak dituen organo bat ezartzea eta mantentzea, zeinak aurrekoaren funtzionamendua eta betetzea gainbegiratzeko ardura izango duen. Compliance Batzordea izena izango du organoak, eta betetze eredia Gainbegiratzeko Organo gisa eratu da.
  - ✓ Aurreko guztia ezartzeko behar diren baliabideak ematea.

Politika hau edo politika honen ondoriozko barne araudia betetzen ez bada, kasu bakoitzean (bazkideak edo lan kontratupeko langileak) aplikatzekoa den diziplina sistemaren arabera zigortuko da barruan, edo dagokion kontratu klausulen arabera (merkataritza agenteak eta, hala badagokio, kanporatzea), kanpoan.

#### 4. ANTOLAKETA EGITURA

Betetze eredia kudeatzeko sisteman edo betetze ereduarekin lotutako beste politika edo protokolo, prozedura edo jarraibide batzuetan ezarritako beste funtzio eta ardura batzuk alde batera utzi gabe, politika honek honako oinarritzko funtzio eta ardura hauek ezartzen ditu, inplementazioari eta jarraipenari dagokienez.

#### 4.1 Kontseilu Errektorea

Kontseilu Errektoreak Erakundearen Gobernu Organo gisa jarduten du, eta hauek dira, betetze ereduari dagokionez, bere oinarrizko funtzioak:

- Politika hau eta bere irismena onartzea eta berrikustea.
- Betetze eredia kudeatzeko sistemaren dokumentazio nagusia onartzea.
- Gerenteak proposatuta, Compliance Batzordea eta bere kideak izendatzea, gainbegiratzea, berritzea edo ezeztatzea, eta batzordearen funtzionamendu araudia onartzea.
- Informazioa jasotzea eta arrazoizko ikuskapena egitea betetze ereduaren ezarpenari eta eraginkortasunari buruz.
- Erakundearen aurrekontua eta estrategia eta Kontseilu Errektoreak berak emandako beste erabaki, politika eta erregulazio batzuk politika honekin bat datozela bermatzea.

#### 4.2 Gerentzia

Gerentziak Erakundeko Goi Zuzendaritza gisa jarduten du, betetze ereduaren ondorioetarako. Hauek dira bere oinarrizko funtzioak:

- Baliabideen kudeaketa eta banaketa zuzena eta egokia bermatzea, betetze eredia eraginkortasunez ezartzeko.
- Politika honekin bat etorritik jardutea eta betetze kultura sustatzea, baita gai horretan prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea ere.
- Espazituki laguntzea Compliance Batzordeari eta harekin lankidetzan aritzea.
- Informazioa jasotzea eta betetze arriskuei buruzko berrikuspina egitea, baita ereduaren martxari buruzkoa ere, erakundearen jardueri dagokienez.
- Behar diren erabaki eta tresna operatibo eta antolamenduzkoak hartzea, betetze eredia modu eraginkorrean ezartzen dela ziurtatzeko eta bermatzeko (prozedurak, protokoloak, jarraibideak, ekintza planak, prestakuntza planak, etab.).
- Compliance Batzordeko kideak izendatzea eta ezeztatzea proposatzea.

### 4.3 Zuzendariak eta aginte karguak

Hauek dira ardura horien oinarrizko funtzioak, Betetze Ereduari dagokionez:

- Betetze Eredu osoa ezagutzea, modu globalean zein espezifikoan, erakundearen dituen eginkizunengatik eta ardurengatik aplikatu beharreko termino berezietarako.
- Ahalik eta arretarik handienez aritzea betetze ereduaren ezartzean, eta, horretarako, Betetze Ereduarekin lotutako prozedurak, protokoloak, jarraibideak, plangintzak eta abar praktikan jartzea edo jarraraztea, bere jardura eremuan baliabideak prest daudela eta behar bezala erabiltzen direla ziurtatuta.
- Eredu izatea Politika honi eta Betetze Ereduari dagokienez, Betetze Batzordeari esplizituki babesa emanda eta harekin lankidetzan arituta.
- Ardurapean dituzten pertsonak -agenteen kasuan eta, hala badagokio, esternalizazioen kasuan ere bai- kontzientziaztea, orientatzea eta gainbegiratzea, betetzeari dagokionez.
- Betetze Batzordeari jakinaraztea bere ardurapeko esparruetan gertatzen den eta Betetze Ereduari eragin diezaiokeen edozein nobedade.
- Hala dagokionean, arrisku mapak egiten laguntzea, bai eta prozedurak, protokoloak, ekintzak eta abar prestatzen eta ezartzen ere, bere ardura eremuak betetzeari dagokionez.
- Bere ardura esparruaren barruan betetze arriskuekiko esposizioa sortzen duten lanpostu zehatzak ezagutzea, eta ziurtatzea dagozkien pertsonak badakitela zer arrisku dituzten eta zer politika eta prozedura bete behar dituzten, eta badakitela, halaber, zer egin behar duten ez betetzeen zantzuak edo arrisku egoerak jakinarazteko.

### 4.4 Compliance Batzordea

Compliance Batzordea Erakundearen betetze ereduaren Gainbegiratzeko Organo gisa eratu da, eta, politika honen bidez, independentzia, aginpidea eta ekimen eta kontrolerako autonomia ematen zaizkio, betetze ereduaren ikuskatzeko, Kontseilu Errektoreak onartutako betetze ereduaren kudeatzeko sisteman ezarritakoarekin bat etorriz.

Era berean, Compliance Batzordeak egunerokoan betetze ereduaren kudeatzeko sistema koordinatu eta kudeatuko du, bai zuzenean bere kide baten bidez, bai bere esku jarritako langileen bidez.

Compliance Batzordeko kideek beraiei esleituko zaizkien funtzioak beteko dituzte, edozein dela ere erakundearen barruan dituzten gainerako jarduerak, harremanak eta maila hierarkikoa.

Hauek dira Betetze Batzordearen oinarrizko funtzioak, eta une oro ULMA Taldearen Compliance Esparru Dokumentuaren arabera garatu behar dira, erakundea horri atxikita baitago

- Kontseilu Errektoreari etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa sistema proposatzea, betetze ereduaren eraginkortasuna ziurtatzeko.
- Politika hau eta betetze eredia betetzea bultzatzea erakundean.
- Erakundea modu objektiboan aholkatzea eta orientatzea betetzearekin lotutako gaiet buruz, horretarako kanpoko aholkularitza izateko aukerarekin.
- Gerenteari eta zuzendariet zein aginte karguet laguntzea betetze eredia modu operatiboan ezartzen.
- Langileen galderei erantzutea eta betetze ereduari buruzko zalantzak argitzea.
- Politika honekin eta betetze ereduarekin lotutako irregulartasunet buruzko salaketak jasotzeko kanal espezifiko bat kudeatzea.
- Betetze eredia betetzeko adierazleak ezartzea eta aztertzea, horien jarraipena egitea eta eredia egokia eta baliozkoa den aldian-aldian gainbegiratzea eta egiaztatzea.
- Betetze ereduaren jarraipeneko txostenak egitea gerentearentzat eta Kontseilu Errektorearentzat.

Betetze Batzordearen eginkizunen, funtzionamenduaren eta osiera zehatzaren xehetasunak barne araudi espezifiko baten bidez arautuko dira.

## 5. KOMUNIKAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

Politika hau eta bere eguneratzeak erakundeko kide guztiet emango zaizkie edo haiek erraz eskuratzeko moduan egongo dira.

Era berean, hemen hartutako printzipioak eta konpromisoak betetzeko beharrezkoa denean, alderdi interesdunet helaraziko zaie.



Betetze Eredua ezartzeko, eraginpeko pertsona guztientzako komunikazioa egingo da, baita erakundearentzat arrisku penalak eragin ditzaketen negozioetako bazkideentzako ere.

Politika eta hura garatzen duten dokumentuak konpromiso hori bete ahal izateko behar diren hizkuntzetara itzuliko dira.

## **6. ZAINZA, KONTROLA ETA DIZIPLINA**

Baldintza penalak ez betetzeak ondorio zibilak (kaltetuentzako kalte-ordainak) eta penalak (isunak, askatasuna kentzea, esku hartze judizialak, jarduerak etetea, jarduerak debekatzea, eta dirulaguntzak eta laguntza publikoak lortzeko, sektore publikoarekin kontratatzeko eta onura eta pizgarri fiskalak edo Gizarte Segurantzakoak izateko gaitasunik gabe uztea, eta enpresa desegitea azken muturrean), bai maila indibidualean (pertsona fisikoa), bai kolektiboan (pertsona juridikoa), eta ondorio komertzialak (bezeroak galtzea) eta ospeari lotutakoak.

Horregatik da oso garrantzitsua Compliance Batzordeak prebentzio jardueraren jarraipena egiteko duen betebeharra; hori horrela, betetze ereduaren funtzionamendua eta betetzea gainbegiratuko ditu, eta Gerentziari eta Kontseilu Errektoreari emango die horren berri. Betetze Ereduarekin lotutako barne araudia betetzen ez bada, diziplinaz zigortuko dira, erakundearen aplikatzekoa den araudi sozialaren eta laneko araudiaren arabera.

## **7. EGUNERATZEA**

Compliance Batzordeak betetze eredia kudeatzeko sistema berrikusiko du, haren indarraldia eta eguneratzea ziurtatzeko, bai eta politika honi dagokionez duen eraginkortasuna ere, eta betetze eredia kudeatzeko sistemaren auditoriak antolatuko ditu, halaber.

Gerentziak, Compliance Batzordeak informatuta, beharrezko erabaki betearazleak hartuko ditu, hartutako konpromisoak etengabe ezartzen direla ziurtatzeko.

Kontseilu Errektoreak Politika honen eraginkortasunaren jarraipena egingo du, eta egoki deritzon guztia eguneratuko du, erakundearen testuingurua, arriskuen ebaluazioak eta egindako zaintza eta kontrolaren emaitzak kontuan hartuta. Era berean, konpromisoa hartzen du betetze eredia etengabe hobetzeko, betetze eredia kudeatzeko sisteman ezarritako baldintzetan.

\* \* \*

**Oñatin, 2022ko martxoaren 25ean.**

**ULMA Forja, S. Coop.eko KONTSEILU ERREKTOREA**